



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-11-28

VIURTEA 1571.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Juantxo Agirre-Mauleon eta Mikel Errazkin Aranzadiko kideak eta liburuaren egileak, Anoetan. IMANOL GARCIA

ANOETAKO HERRI SINISMENA BILDU DUTE LIBURU BATEAN

ANOETA 'Anoetako herri-sinismenak historian zehar' aurkeztuko dute gaur elizan, Agirre-Mauleon, Errazkin, Hernandez eta Rodrigerez egileek 10

36ko gerraren ondorioak gaur, 'Gerra ixila' antzezlanarekin

TOLOSA HITZAK eta Galtzaundik antolatuta, Leidor aretoan izango da, 22:00etatik aurrera 4

Mikel Azkarateren aldeko ekintzak antolatu dituzte

TOLOSA Plataforma bat osatu dute 'Petas' ezagunaren tratamendua ordaintzen laguntzeko 3

- Astebukaera arratsaldetan irekita
- Pintxo bereziak
- Infusioetan eskaintza
- Txokolafea txurroekin

Kale Nagusia 45 • Villabona • 943 690 090



Titirijai 2008ren baitan, honako saio hauetarako **sarrera pare bana** zozketan, deitu eta eskuratu:

Abenduak 6 larunbata • 17:30ean Tolosako Udal Musika Eskolan: **EUGENIA NAVARRA**

Abenduak 6 larunbata • 19:00tan Tolosako Leidorren: **TEATRO DE LA LUNA**

Abenduak 7 igandea • 17:30ean Tolosako Udal Musika Eskolan: **LA PICARA LOCUELA**

Abenduak 7 igandea • 19:00tan Tolosako Leidorren: **BUHO MARAVILLAS**

Abenduak 8 astelehena • 17:30ean Tolosako Udal Musika Eskolan: **TITERES DE SAN PETERSBURGO**

Abenduak 8 astelehena • 19:00tan Tolosako Leidorren: **COMPANIA DEL PRINCEP TOTILAU**

Deitzen duzuenok, **17:30**erako edo **19:00**tarako saioetako zozketetan sartu nahi duzuen esan beharko duzue. Ezingo da saio zehatz baterako zozketan sartu.

HITZAren harpidedunentzat abantailak

Parte hartzeko, deitu goizez zenbaki honetara: **943 65 56 95**



Z Zurea da hitza

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Hotza, euria eta haurrak

Eguraldi txarrarekin ezta erraza haurrekin zer egin jakitea; ba al da irtenbiderik?

Azkenaldi hontan, eztugu euria besterik. Etxean goxo-goxo egoteko giroa. Zenbaitetan ordea, ezta erraza egun osoa etxean pasatzea, airea hartzea ere beharrezko degu eta. Hartu aterkia, jantzi botak eta segi kalera, liburutegira, dendaren batera edo tabernara.

Haurrekin, txikiekin batez ere, zaila da zereginik aurkitzea. Dendaz-denda ibiltzeak ezte ilusiorik egiten, tabernara sartzea etzaiekomeni eta liburutegian, tarte bat bai, baino arratsalde osoa gehitxo izan ohi da. Etxetik ateratzeak bakarrik berelanak baditu. Eztu eserita joan nahi, are gutxiago plastiko barruan! Korrika egin nahi dute, lurrean ibili, ezтира geldirik egotekoak.

Prest al daude gure herri eta herriak kaletarren neguko beharrei aurre egiteko? Ezta pentsatu ere. Hala ere, Tolosan, erremedioa ezta zaila. Baditugu behintzat bi gune oso aproposak. Zerkausia bata, Berdura Plaza bestea.

Zerkausiak berogailuak ere baditu, norbaiti piztea otu behar zaio ordea. Herritarrentzat berresku-

ratzeko idearekin berritu zen Zerkausia. Orain artean aldiz, kanporako erakusleku bezela erabilera ederra eman zaiola iruditzen zait. Noizko herritarren Zerkausia? Neguan, hiruzpalau orduz berogailuak piztuko balira, bizitzaz betekogenuke.

Berdura Plaza zoragarria da. Soka-saltoan ari zirenen duela hamabost bat egun. Zenbait terrazetan jartzen diren gasezko berogailuak goitik zintzilikatu, eta hortxe, beste kale zati bat negurako prest.

Ziur Tolosako haurrek asko eskertuko luketela, eta gurasoek, aiton-amonek eta gure kaleetan ibiltzea gustoko degun guztiok.

Ander Auzmendi.

Pasca Vazquezi eginiko lana eskertuz

Datorren azaroaren 29an, Orixe Institutuko atezaina den Pasca Vazquezi erretiroa hartzeko unea iritsiko zaio. Bera, ireki zenetik, Institutuko langilea izan da 34 urteetan zehar.

Instititutuan eginiko lan guztiak eskertu nahi dizkiogu, baita gogoratu ere berarekin gozatu ditugun memento guztiak. Era berean, bere emazte, seme-alaba eta lagun

guztiekin bere erretiroa goza dezan opa nahi diogu.

Orixe BHI.

Jesusen Bihotzakoak igeriketa ikastaroan

Urriaren 27an hasi eta azaroaren 21a bitartean, Jesusen Bihotza ikastolako LH1, 2 eta 3. mailakoak igeriketa ikastaroa egiten aritu gara Villabonako Olaederra kiroldegian. Egutero-egutero ordubetez joan gara, eta neketxua izan den arren, oso ondo pasa dugu eta asko ikasi dugu. Esan bezala, pasaden ostiralean amaitu genuen ikastaroa eta atzo, LH4. mailakoak hasi ziren.

Jesusen Bihotza.

Udaletxea ez dago krisian

Urtero data hauetan errepikatzen den irudia da hemen ikusten duzuen. Krisi hitza denen ahotan dabilen honetan, Tolosako udaletxearen badirudi honek ez duela eraginik.

Gabonak iristeko hilabete inguru falta da, baina dagoeneko Tolosako Udaletxean argiak piztu dituzte. Badakit urteroko gauza dela hau, baina egoera egun dagoen bezala, ez zait normala iruditzen. Duela egun gutxi zabaldu zen, argi indarraren prezioa %30 inguru igoko zela. Pentsatzen dut, igoera hau Udaletxeari ere aplikatuko zaiola. Beraz, aurtengoan, inoiz baino garestiago aterako zaio Udalari, eta azken batean, tolosarrei, gabonetako argiak mantentzea.

Krisi ekonomiko honen aurrean herritarren kontzientziarioa bilatzen badugu, zer gutxiago, Udala eredu izatea. Baina honekin erakusten digute, ez zaiela axola. Gero, datorren urtean zergak igoriko dituzte, nola ez. Argi indarraren gastua ordaintzeko nonbaitetik atera behar dirua. Mesedez, exemplu eman, eta beharrezkoak ez diren gastuak ekidin, gauzak ez baitaudetxorakerietarako. Udaletxea politago egoteagatik ez gara gusturago egongo.

Tolosarra.

K Kirol jarduera**Gaur****Areto-futbola**

■ Usabalgo goiko kantzian, 2. lurraldekoak, 20:30ean: Laskorain-Errexil.

■ Uzturpe pilotalekuan, 20:30ean Zesta punta Espainiako Txapelketa: Seniorretan, Beotibar - Noain; Ondoren, Gipuzkoako txapelketa: Kadeteen Mailan, Beotibar - Zumai; Senior Mailan: Beotibar - Donosti.

Bihar**Futbola**

■ Berazubi futbol zelaia: 16:30ean Gorengoena Maila. Tolosa CF - Hernani.

■ Usabalgo futbol zelaian, infantilen Ohorezko Maila, 10:00etan: Tolosa CF - Sanse.

■ Usabalgo futbol zelaian, 11:30ean Kadeteen Euskadiko Liga: Tolosa CF - Indautxu.

■ Usabalgo futbol zelaian, 15:30ean Lurraldekoen Bigarren Maila: Amaro - Juventudes America.

■ Usabalgo futbol zelaian, Jubenilen Ohorezko Maila 17:30ean, Tolosa CF - Orioko.

Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantzian, 10:30ean, Infantilak: neskak TAKE B-Hondarribia; mutilak TAKE A-Arizmendi.

■ Usabalgo goiko kantzian, Kadeteak 12:00etan: neskak TAKE A-Easo; mutilak, TAKE Tovar-Mutriku.

■ Usabalgo beheko kantzian, 16:00etan, Junior maila: TAKE Or-bela-Zarauz.

Areto-futbola

■ Usabalgo goiko kantzian, Lurraldekoen Lehenengo Maila, 16:00etan: Tolargi-Lazkao.

■ Usabalgo goiko kantzian, 18:00etan Nazional Maila, Laskorain-Kenci.

■ Usabalgo beheko kantzian, Jubenilak, 12:00etan: Laskorain-Anoeta.

Mahai-tenisa

■ Usabalgo gym-ean: 16:30ean, Olaederra-Etxadi.

Etzi**Eskubaloia**

■ Berazubi futbol zelaian: 16:30ean Gazteen Nazional Maila. Tolosa CF - Getxo.

■ Usabalgo futbol zelaian: emakumezkoen Senior Maila, 11:00etatik aurrera, Tolosa CF - Usurbil.

Judo

■ Usabalgo goiko kantzian, Gipuzkoako Txapelketa, 09:30ean.



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala Tolosa (Bellatokia)

Mikel Azkarateren tratamendua ordaintzeko ekintzak antolatatu dituzte

Tolosa » Plataforma bat sortu dute eta hauek, ahalik eta diru gehien lortzea dute xede; lehen ekintza abenduaren 14an da.



Mikel Azkarateren ingurukoek sortutako plataforma aurkeztu zuten herenegun gauean. ESTI EZEIZA

ERREDAKZIOA

Mikel Azkarate *Petas* musikariari laguntzeko plataforma bat osatu dute bere lagun eta ahaideek. Elkartekoek dirua bildu nahi dute Azkarateren tratamendua ordaindu ahal izateko.

Mikel Azkarate tolosarrak 48 urte ditu eta uztailaren 16an burmuineko infartu bat eman zion. Ondorioz, koma egoeran geratu zen eta 19 egun igaro behar izan zituen Zainketa Berezietako Gelan. Donostia Ospitalean lau hilabete igaro eta gero, orain dela bi aste Arrasateko Aita Menni erietxe espezializaturara eraman zuten eta, egun gutxitan, hobekuntza nabarmena izan du.

Tratamendua, hala ere, gutxienez, hiru eta sei hilabete artean luzatu beharko du eta familiak nekez egin diezaiok aurre gastu horri. Hilero ia 8.000 euro ordaindu behar dituzte, ezin izango du bi edo hiru hilabete baino gehiago egon.

Egoera honen aurrean, senitar-

teko eta lagunek plataforma bat sortu dute gastu horiei aurre egiteko, ahalik eta diru gehien lortzen saiatzeko.

Aurrera begirako egitasmoak

Mikel Azkarateren zaletasun handienak musika eta futbola ziren. Hala, herenegun iluntzean egin-dako aurkezpenean, besteak beste, ondorengoek hartu zuten parte: Juanma Lillo, Realeko entrenatzaileak; Iñaki Arratibel, kirol medikuak, Peli Almuendo umorista eta Eñaut Zubikarai, Realeko atezainak.

Herenegun goizean, anto-

latu duten lehen ekimenaren berri eman zuten. Abenduaren 14an, herri bazkaria, eta jarraian, bazkaria izango da Zerkausian, txaranga, dultzainero, txistulari, trikitilari eta Nafarroako jotek lagunduta. Divinus Catering enpresaren babsa duen bazkarirako txartelak salgai daude jada, Tolosako ondorengo tabernetan 25 euroren truke: Antiguu, Asteasuarra, Babes, Elurra, Ikatzia, Iratxo, Izaskun, K-2, Laier, Lainoa, Txiki, Triangulo, Meson, Beti-Alai eta Zumeta jate-eta.

Lehen ekitaldi honetaz gain, plataformak beste hainbat jardue-

ra antolatzeko asmoa ere badu. Esaterako, Peli Almuendok umorezko ikuskizun bat prestatzeko konpromisoa agertu zuen. Bestalde, futbol partida bat antolatzeari ere irki dituzte interesa duten guztien beraien ekarpen ekonomikoak egiteko. Bata, Euskadiko Kutxakoa da (3035 0156 81 1560018555) eta bestea, Kutxakoa (2101 0081 12 0012254405).

Bestalde, enpresa eta erakunde desberdinen laguntza bideratzen ari dira eta bi kontu korronte ere ireki dituzte interesa duten guztien beraien ekarpen ekonomikoak egiteko. Bata, Euskadiko Kutxakoa da (3035 0156 81 1560018555) eta bestea, Kutxakoa (2101 0081 12 0012254405).

Humus talde tolosarrak 'Lekuak' lana aurkeztuko du bihar gauean

Tolosa » Naiz Roxa taldearekin batera Bonberenean entzuteko aukera izango da; gaur berri, Muyayos de raiz.

ERREDAKZIOA

Gaur eta bihar musika izango da nagusi Bonberenean. Hasteko, 22:30etik aurrera Muyayos de raiz taldea entzuteko aukera izango da. Muyayos de Raiz Holandako Uterch-en osatutako taldea da eta folk nahiz reageg erritmoak egiten dituzte. Gaurkoan, taldearen izen bera daraman estreinako lana eza-gutzera emango dute.

Bestalde, bihar, Humus Tolosako taldeak *Lekuak* izeneko laugarren diskoa aurkeztuko du. Bonbereneako estudioetan grabatu dute hau eta Karlos Osinagak egin dizkie soinu teknikari lanak. Grabazioa, doinu trinko, kementsu eta melodia ederrez eraikia dago.

Humusekoekin batera, 22:30etik aurrera, eszenatoki gainean izango dira Naiz Roxa taldekoak. Hauek Pasai Donibanetik datoz eta *Iqharaturic* lana aurkeztuko dute. Matxet, Jousilouluko abeslaria izandakoaren proiektu berria da Naiz Roxa.

Jai giroan, 'Oargi martxa' grabazioa aurkeztuko dute bihar

Tolosa » Duela 15 urte elkarkeak sortutako Inauterietako doinua grabatu dute eta bihar emango dute ezagutzera.

ERREDAKZIOA

Oargi mendi elkarkeak *Oargiren martxa* izeneko grabaketa aurkeztuko du bihar. Honetaz gain, beste hainbat ekitaldi ere izango dira, 11:00etatik aurrera.

15 urte atzera eginda

Duela 15 urte, Oargin urteko batzarraren egintza, pentsatu zuten hurrengo urteko Inauterietarako abestia bat egitea, eta txaranga atezainak. Hala, Amaia Lizaso Oargiko bazkideak, bere burua eskaini zuen lan hori burutzeko. Hurrengo urterako Oargiko martxa sortu zuen. Inauterietarako musikorik aurkitzeko denborarik ez zutela eta 1994ko Piñata igandean entzun zen lehen aldiz Tolosako kaletan.

Mila G. Iturrospek bildu zituen musikariak, garai hartako musika eskolako ikasle eta boluntario batzuek osatuta. Aurten berri, Tolosako elkarte gehienek beraien martxa audio formatean dutela ikusita, Oargikoek martxa disko batean grabatzea erabaki dute. Lan hori Tolosako The Jones Brothers txarangak egin du. Diskoarekin batera, Pdf formatuan musika tresna guztientzat partiturak aurkitu daitezke, gidioa barne. Interesatuak hiru euroren truke eskuratu dezakete 666 79 42 44 telefono zenbakira deituta.

Oargiko Martxaren aurkezpena, urteroko babarrun jatea ere egingo dute elkarkearen egoiztan. Bazkalostean, toka txapelketak egingo dute.

12:00etan aurkeztuko dute diskoa, baina honen aurretik, 11:00k aldera, Oargi mendi elkartera inurdatzen direnentzat eta sukaldarientzat hamaiketakoan izan da. Aurkezpenaren ostean berri, potzen herrikoia egingo dute dultzain eta txaranga doinuekin.

Euskararen Egunaren harira zenbait ekitaldi Tolosa eta Altzon

Kultura » Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, taloak, Udaberriren emanaldia eta bertsoak izango dira bihar.

ERREDAKZIOA

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzen da abenduaren 3an, baina honi aurre hartuz, hainbat ekitaldi antolatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak, baita Altzoko Udalak ere.

Bihar goizean, Triangulo plaza, euskal giroa izango da nagusi. Izan ere, 10:00etatik 15:00etara taloak eta sagardoak dastatzeko aukera izango da. 12:00etan berri, Udaberri Dantza Taldearen emanaldia eta trikitilariena izango da. Ordu bat beranduago, Uxue Fernandez eta Adin Rezola ariko dira bertsoetan.

Bestetik, abenduaren 3an Joxerra Garziak hitzaldia eskainiko du *Zer arrai, kristo, demontre... egin behar dugu euskararekin* izenburupean. Ekitaldia 18:00etan hasiko da. Honetaz gain, hilaren 13an,

Euskara Batzordeak antolatuta, Prefosta taldeak kantaldia eskainiko du.

Ekitaldi hauez gain, Ereite elkarkeak antolatutakoak ere izango da. Esaterako, gaur, Vuelta Bonita Corporationen *Babel mundua* antzezlanak ikusgai izango da Leidor antzokian.

Altzon ere ospatuko dute

Altzon ere Euskararen Eguna gogoratu nahi izan dute eta horretarako igandean ekitaldi xume bat

antolatu dute hau gogoan izanik. Baloia filma ikusi ahal izango da udaletxe gelan.

Haur eta nerabeentzat aproposa da aventura film hau. Irudimena eta adiskidetasuna, besteak beste, jorratzen ditu film ingeles honek. Gauza harrigarriak egingo ditu baloia. Zer egiten duen ikusteko 17:00etan udaletxean azaltea besterik ez da. Honenbestez, herritar guztiak gonbidatuta daude etzi arratsaldeko ekitaldian parte hartzera.

**OKINDEGI/KAFETEGIEN SEKTOREAN
LIDERRA DEN ENPRESAK
NEGOZIO BERRITZAILA ETA
KONTRASTATUAREKIN
LEITZAKO HEDAPENERAKO
BEREKO NEGOZIOA KUDEATU NAHI
DUTEN PERTSONEKIN
HARREMANETAN JARRI NAHI DU
ERRENTAGARRITASUNA ZIURTATURIK
Harremanetarako telefonoa:
607219256 / 607 575018**

36ko gerraren ondorioetan oinarrituriko antzezlan, gaur

Kultura » Leidor aretoan izango da, 22:00etatik aurrera, doan; 'Galtzaundi' eta HITZAK antolaturiko ekimena da.

INIGO TERRADILLOS

Galtzaundi eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK antolatuta, antzezlan interesgarria izango da gaur ikusgai, Leidor aretoan, 22:00etatik aurrera, doan. Lasarteko Landaberri antzerki eskolaren eskutik *Garraxi ixila* izango da hain zuzen ere taularatuko dutena.

Antzezlan 1936ko Gerran gertatutako inguruko da. «36ko gerra jasan zuen belaunaldiarekin zor bat dugula pentsatzen dugulako» eskaintzen dute emanaldi hau; «hainbat urtez, beldurpean, isilik

egon diren biktimak biktima bezala aitortzea nahi dugu, izan ere, badakigu erakundeetatik jaso duten babes eza, beraz, inoiz berandu izango ez denaren esperoan irain hori, nolabait konpentsatu nahiko genuke gure lan xumeekin», azaltzen dute egileek.

«Gerra bat ez du inork irabazten. Denek galtzen dute», diote. «Baina ofizialki galtzaile izan zirenen ikuspegitik kontatua dago». Euren arabera, «biktimak ahaztu nahi izan dituzte, gogoratzeak min egiten dielako, eta borroeroek ahazte nahi izan dute, lotsa arazten dituelako, ez dute lehengoaz hitz egin nahi; ahaztea hobeto. Baina ez gara konturatzen, hura gertatu zelako gaudela orain gauden moduan, eta berriro gerta ez dadin, bederen, jakin beharko genukeela ahalik eta zehatzener gertatu zen».



Lasarteko Landaberri antzerki taldearen *Garraxi ixila* antzezlanaren une bat. HITZA

Andoainen Oroituz (memoria historikoaren aldeko taldeak) egindako lanaren ondoren Xabier Lasak idatzitako *Oroimenean lo-kartutako ahotsa* liburuan oinarritutako antzezlan da gaur taularatuko dutena. Horretaz gain, antzezleen familietan gertatutako pasadizuak ere kontaktzen dituzte. Antzerki taldea duela 5 urte hasi zen antzerkia ikasten, eta harrezgero, urtean behin lan bat aurkezten dute, azkena *Garraxi ixila* delarik.

» DATUAK

- **Lana.** *Garraxi ixila*.
- **Noiz eta non.** Leidor aretoan, gaur, 22:00etan, doan.
- **Egileak.** Landaberri antzerki eskola.
- **Zuzendaria.** Joxerra Fachado.
- **Aktoreak.** Kontxu Yarza, Junkal Perez, Dontze Iradi, Ane Huizi, Lorea Yeregi, Anabel Heleno, Jexus Mari Presa, Estitxu Garmendia, Mailu Arruti eta Mirentxu Egizabal.

Liburuaren aurkezpena

Gaur izango den antzezlan 1936ko Gerrako Oroitzapenak *Tolosaldeko eta Leitzaldeko* liburuaren aurkezpenaren harira dator. Astelehenean aurkeztuko da jendarean *Galtzaundi* eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK elkarlanean argitaratu duten lana. Zerkausian, 20:00etan izango da ekitaldia, ondorengo lunch batekin. Bestalde, hurrengo egunean, asteartean, gerra zibilari buruzko hitzaldia izango da udaletxean.

Laburrak

Familien meza izango da bihar Santa Maria elizan

ERLUIJOA » Santa Maria Parroki elizan familien meza izango da bihar, 19:00etan izango da, eta gurso eta seme-alabekin eta nahi dutenekin joatera gonbidatu dituzte herritarrrak.

Txuletaren Festan parte hartzeko zozketa gaur

EKONOMIA » *Eroso Erosi, Tolosan* Noski kanpaina bukatu da, eta Tolosako dendek gaur bertan txartelak Plaza Berriko Abastos eraikinean utziko dituzte. 13:00etatik 13:30era izango da hori, eta ondoren, zozketa egingo dute. Zozketa horretatik 12 pertsonen Txuletaren Festan parte hartzeko gonbita jasoko dute.

Ingeleseko mintzapraktika egiteko deialdia

HIZKUNTZA » Ingelesa ikasi eta hobetu asmoz, mintzapraktika egiteko deialdia luzatu dute. Ekimen honetan parte hartu nahi duenak, 600 27 91 89 telefono zenbakira deitu beharko du, edo bestela, ikerregi1979@hotmail.com helbidera idatziz.

'Go!azen' filma botako dute hurrengo astean doan

ZINEMA » Pasa den igandean Leidorren iragarrita zegoen *Go!azen* filma bertan behera utzi beharra izan zuten arazo teknikoengatik, eta horregatik barkamena eskatu nahi dute. Hala, abenduaren 5ean eta 6an bi saio izango direla dohai-nik azaldu dute.

Herriaren etorkizuna aztertzeke helburuz, World Kafea, gaur

Gizartea » Zerkausian izango da 19:00etatik aurrera; 27 mahai jarriko dituzte, eta bakoitzean gai bat jorratuko dute.

ERREDAKZIOA

Ekimen berezia izango da gaur Zerkausian, 19:00etatik aurrera, World Kafea izaneko, alegia. «Herriarren iritziaz jasotzea» du

helburu ekimen honek, eta horretarako formula berria erabiliko dute.

2006 urteaz geroztik eta Udalak bultzaturik Tolosa 2015 ekimena martxan dago, eta hain zuzen ere, gaurko ekitaldia horren baitakoa da. Udalak azaldu bezala, «proiektu honen helburu nagusia Udalaren, herritarren elkarteen eta tolosarren artean etorkizuneko plan bat adostea da, herri jasangarriagoa lortze aldera». Hala, estrategia

bat diseinatu nahi dute eta lehen-tasun batzuk ezarri, 2015era begira, «Tolosaren garapenak eta ongizateak dituzten beharrak kontuan izanik».

Gaurko ekimenean, World Kafean oinarritutako kafe-solasaldi bat izango da, hau da, lau pertsonenez osaturiko 27 mahai egongo dira, eta mahaiaren kolorearen arabera gai bat edo beste jorratuko dute, herriaren etorkizunari begira.

Guztiak berdinak garelazaltzen

GENERO INDARKERIA » Udaleko Berdintasun sailak Emakumeengana-ko Indarkeriaren Aurkako Eguna-ren harira antolatuta, mahai-ingurua izan zen atzo Helduen Hezkuntzan. Miriam Herbonek eta Xabier Odriozolak hartu zuten parte, alderdi desberdinetatik gaia azaldu zutelarik. Esaterako, historian zehar errepasua egin zuten azaltzeko emakumearen eta gizonearen eskubideen artean egin diren desberdintasunak. I.T.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

IDOIA OTEGI ETA MIGUEL ARRETXE » Txotxongilo jaialdiko zuzendariak



L. TERRADILLOS

erakustea eta jendeak gozatzea, baina, horretaz gain, jaialdi desberdinetako antolatzaileak elkarrezko balio du, ideiak trukatu ahal izateko. Gure artean elkartzeko gune dira. Konpainietako kideak elkarrekin egoteko ere balio du, elkarrengandik ikasteko. Guk hori

«To.Pic zentroak jaialdia aldatuko du, baina oraindik ez dakigu zertan»

ahalbidetu nahi izaten dugu, jaialdiak irauten duen artean bertan egoteko gonbita izaten baitute.

Datorren urtean To.Pic zentroa irekita egongo da. Zertan aldatuko da jaialdia?

M. A. Hau azken jaialdia izatea espero dugu To.Pic gabe. Zentroarekin jaialdia aldatuko da. Agian maiztasuna alda daiteke, leihoa sekzio bati eskaini beharrean lurralde bati, gai bati edo egile bati eskaini daiteke... ondo pentsatu beharra daukagu. Gure mugetara ere gehiago zabaldu behar dugu, zerbait gurea egin, txotxongiloen produkzioa, lan egiteko gogoaz bultzatzeko. Ideia asko daude.

I. O. Jaialdiaren forma berri bat pentsatu behar dugu, eta horretan ari gara lanean. Beste jaialdietako jendearekin ere ari gara ideiak trukatzeko zentzu honetan.

Proiektua gauzatzeko ari dela ikustean zer sentitzen duzue?

I. O. oso hunkigarria da. Hainbeste urte eta gero egi bihurtzen ari dela ikustea... batzuetan ametsa dela ere iruditzen zait. Herriarentzat oso erabilgarria izango da baliabide ugari izango baititu. Kontuan hartu behar da, gaztetxoek zuzenduriko proiektu bakarretakoa dela, hori oso garrantzitsua da haurrak baitira etorkizuna.

Herriarengandik zer erantzun jaso duzue?

M. A. Jendearen erantzuna ere oso ona da. Ikusten dugu gogo oso hartu duela jendeak, eta galdezka ari zaizkigu ea noiz irekiko dugun. Gainera, alderdi guztien onespena izan zuen proiektuak, beraz, hori pozgarria da, eta erakunde askok lagundu dute.

Nolan hasi zineten txotxongiloen jaialdia prestatzen?

M. A. Abesbatza Lehiaketaren 15. edizioan, egonkortasuna eta ospea lortzen ari zen, eta indarrez betetik aurkitzen ginen. Hala, beste zerbait egin behar genuela pentsatu genuen, baina ez genekien zer. Antzerkiarekin lotuta egotea nahi genuen, eta haurrei zuzendurikoa. Antxon Elosegik Tolosako Ekinbide Etxeko lehendabiziko lehendakariak bota zuen txotxongiloekin zerbait egitearen ideia, eta gustatu zaitzaigun. Enkarni Genua eta Manolo Gomezekin jarri ginen harremanetan, beraiek gaiaren inguruan bazekitelako, eta lehen pausok ematen lagundu ziguten. Eta horrela joan ginen pixkanaka.

«Parte-hartzea bultzatzen duten lanek dute arrakasta gehien»

Titirijai » 26. Nazioarteko Txotxongilo jaialdia hasiko da bihar; klasikoaren eta berrikuntzaren arteko oreka mantentzen saiatu dira aurtien ere.

INIGO TERRADILLOS

Bihar hasiko da 26. Titirijai Nazioarteko Txotxongilo jaialdia. Gaztetxoentzat bereziki, baina baita helduentzat ere abenduaren 5era arte maila handiko ikuskizun ugari gozatzeko aukera izango da, aurtien lurralde gonbidatua Errusia izango delarik. Miguel Arretxe eta Idoia Otegi aurtengo jaialdiaren xehetasunen berri eman dute, eta hurrengo urtean zabalik egongo den To.Pic zentroaren esanahiarekin ere hitz egin dute.

Zeintzuk dira aurtengo jaialdiaren nabarmentzeko puntuak?

Miguel Arretxe. Hiru puntu nagusi dira aipatzekoak. Batetik, aurtengosekzio berezia txotxongiloen tradizio handia duen lurralde bati eskaini diogu, Errusiari, alegia. Denera 5 konpainia etorriko dira bertatik, eta nabarmentzekoa da Moskuko Obratsov taldea, 350 langile dituen. Txotxongiloak asko maizatu dituen lurraldea da Errusia.

Idoia Otegi. Bestetik, estreinaldi handi bat izango dugu. Madrilgo Teatro de la Luna taldearen *El jardinero* hain zuzen ere. Ekoizpen prozesu artistak desberdinekin batera egin dute, eta artean, Berastegina bizirik diren Maria Cueto eta Mariano Arsuaga margolari eta eskul-

toarek, eta baita Tolosako Aurelio Vicente ere. Antzerki lanarekin batera, Leidorren erakusketa jarriko dute irudiekin eta proiektioekin, antzerkia antzerki bihurtzera iristeko eman dituzten pausoak azalduz. Bestalde, Thailandia eta Sri Lankako konpainiak izango ditu estreinakoz. Biak Asiakoak, primitiboagoa, oinarrikoagoa da, oso etnikoa, eta Thailandiakoak, berriak, tradizionala, baina landuagoa eta estetikoagoa.

M. A. Aipatzeko da baita ere, flamenkoa eta ipuin klasikoak batzen dituen ikuskizuna, Andaluziako Buho & Maravillas taldearen *Los músicos de Brenes*. Jolas egiten du *Bremengo musikariak* ipuin klasikoarekin. Txotxongiloekin batera, flamenko taldeak ere parte hartzen du taula gainean, abeslari eta dantzariarekin. Oso interesgarria iruditzen zaigu.

Nola aukeratu dituzte jaialdiaren parte hartuko duten konpainiak?

M. A. Ahal duguna ikusten dugu, baina beti ezin ditugu konpainia guztiak zuzenean ikusi. Horrela, koetan, DVDetan edo ikusten ditugu konpainiak.

I. O. Horretaz gain, adituen iritzia ere kontuan hartzen ditugu.

Konpainiek derrigor ezagunak eta ospea edo sona dutenak izan behar al dute?

M. A. Gustatzen zaigu gazteak eta hain ezagunak ez diren taldeak ere ekartzea, eta ez beti sona dutenak. Horren adibide da Kataluniako Microcosmos. Arriskua edo erantzukizuna ere izaten du horrek, baina guretzat, bai eta beraientzat ere. Guretzat, izan ere, agian ez da espero genuena bezain ona, eta ez du beharrezko maila ematen, eta horrek agian beraientzat ondorio txarrak ditu aurrera begira.

I. O. Aitzik, jende aditu ugari dator jaialdia ikustera, eta parte-hartzaileen lana gustatuz gero, beste jaialdiaren parte hartzea lor dezakete, horrela pixkanaka ezagun bihurtuz. Tolosan parte hartu duten konpainia askok eskertzen dute gure gonbita, bertan izatearen ondorioz leku askotatik deitu izan di-

«Errusiara leihoa eta 'El jardinero'-ren estreinaldia dira aurtien nabarmentzekoak»

tuztelako. Beraz, hori ere erantzukizun handia izan daiteke konpainia gazteentzat.

Hizkuntzari dagokionez, gazte-raz direnak nabarmentzen dira jaialdian.

M. A. Testua badute, gaztetxoentzako saioetan oso garrantzitsua da beraiek ulertzea. Horregatik, konpainiei eskatzen diegu gaztele-

raz egiteko ahalegina egin dezaten. Gazteleaz egin dezakete, merkatu handia baitu munduan, euskeraz, ordea, oso zaila da, ez baitute baliabiderik izaten horretarako. Beraz, atzeritik datozen taldeekin oso gutxitan lortu dugu euskeraz egitea; behin baino ez dugu lortu Poloniako konpainia batekin, hango unibertsitatean euskara irakasten dutelako Bilboko irakasle batekin, eta hura izan zen konpainiaren lana itzuli eta entseguetan lagundu ziena ahoskerarekin-eta. Oso polita geratu zitzaion. Horregatik, hizkuntzarena konpentsatzeko testurik gabekoak ekartzen ditugu, baina hau ez zaigu gehiegi gustatzen; izan ere, 45-50 minutuko saioa bat testurik gabe jarritz gero, eta akzio handiegirik ez badu gaztetxoak erraz aspertu daitezke.

Ze lanek izaten dute urtetik urtera arrakasta gehien?

M. A. Parte-hartzea bultzatzen duten antzerkiek. Ipuin klasikoek ere arrakasta handia izaten dute. Bertsiotz ugari ikusi ditugu *Eduarne Zuri*, *Txanogorritxo* edo *Pinotxo*, esaterako. Haur gehienei hori gustatzen zaie gehien, beraz, saiatzen gara horretatik ere egon dadin jaialdian urtero, baina era berean lan klasiko hauek berrikuntzekin uztartuta egon daitezkeen ere begiratzen dugu. Lan garaikideak ere sartu behar ditugu, autore gazteak... Bi ardatz horiek hartuta oreka bilatzen saiatzen gara urtero.

Zein da jaialdi hauen helburua?
I. O. Txotxongiloen ikuskizunak

Madrilgo Teatro de la Luna taldearen 'El jardinero' lanaren estreinaldia izango da Titirijai jaialdian; antzezlanaren sorreran eskualdeko Maria Cueto, Mariano Arsuaga eta Aurelio Vicente aritu dira.

Lorategi bat sortzearen artea

INIGO TERRADILLOS

Olerki batetik dator guztia. Aitak Eulaliari txikitari oparitu zion olerki batetik. Elkarrekin nola irakurtzen zuten gogoan du, «oso kitzikagarria izaten baitzen». Urte asko dira aita hil zela, baina olerkiak bere buruan jarraitzen du. Horregatik, aitak erakutsi zion olerkia antzerki bihurtu nahi izan zuen, «aita eta olerkia antzezpenez orotan bizi zitezene».

Horrelaxe kontatzen du Madrilgo Teatro de la Luna taldearen *El jardinero* antzezlanaren sorrera Eulalia Domingo egileak, izan ere, «olerkia lorategi irribarretsuri buruzkoa zen». Juan Manuel Recover egile eta aktorearen alboan, «poesiaz eta pasioz beteriko txotxongiloentzako istorioak sortzeko modurik onena» aurkitu duela dio. Abiapuntutik antzezlanera iristeko bidea luzea izan da, luzea

eta neketsua, baina jendaurrean aurkezteko unea iritsi da, eta Titirijai jaialdian egingo dute, abenduaren 5ean eta 6an, Leidorren.

Txotxongilo lan honetan artista ugari hartu dute parte, eta tartean badira eskualdekoak; Berastegin bizi diren Maria Cueto eta Mariano Arsuaga eta Tolosako Aurelio Vicente.

Proiektutik eszenatokia

Egilearen hitzetan, «osogarrantziatsua izan da Maria Cueto eskultorearekin topo egitea». «Nire lan bat ikusi eta asko gustatuta deitu zidaten, lorategi bati buruzko lana egin behar zutela esanez», azaltzen du Cuetok. Eszenografia berak diseinatu du, Mariano Arsuaga artista plastikoaekin batera. Maria Cuetok trama edo bilbekin lan egiteko eskarmentu handia du, eta hori izan da batik bat erabili duten teknika antzezlanerako eszenatokia



Eszer-eskuin: Maria Cueto, Aurelio Vicente eta Mario Arsuaga, Leidorren. I. TERRADILLOS

sortzerako orduan. Ehunaren barne bilbeak erabili dituzte, pantaila serigrafikoan jarri eta estanpatzeko eta horrela marrazkiak sortzeko, paisaia, ikuspegia eta sakonera sortzeko, esaterako.

Cuetoarekin eta Arsuagarekin batera Aurelio Vicente tolosarra aritu da lanean. «Ezagutzen genuen elkar, lehenagotik lan egin izan dugulako». Vicentek irudiekin egin du batik bat lan; «Eszenatoki birtuala eratzen joan naiz».

Berrikuntza eta tradizionala

Errealitatea eta abstrakzioaren arteko polarizazioak hitz egiten dute artistek. «Antzezlanaren egileek ideien berri eman ziguten, eta gu horren arabera joan gara eszenatokiari bizi ematen; ez genuen oso erreala izaterik nahi, hau da, esaterako zuhaitz bat dago lorategian, baina ez du benetako enborra, hostoak-eta bai, baina enborra beste era batera egin dugu, beste

teknika batzuen bidez, abstrakzioa ere bilatuz», dio Arsuagak. Baina, teknika berriak erabili dituzten moduan, ohiko teknikak ere erabili dituzte, puntua, esaterako. Eskualdekoen lana, eszenatokiaren gain, txotxongiloak sortzearena ere izan da neurri batean, Arsuagak, hauen arpegiak marraztu baititu. «Arlo desberdinetan aritu gara, baina eszenatokiari, Juan Manuel Recoverren lana ere azpimarratzeko izan da, beraren laguntza ezinbestekoa izan baita», dio Arsuagak. Halaber, Teatro de la Luna taldekoek egingo dako lana ere nabarmetzen dute, Eulalia Domingo egilea, Pascal Gaigne musikarekin, Francisco Sarrion argiztapenarekin, Laureano Olaetxea serigrafian, eta Joaquín Notario zuzendaria, besteak beste.

Eskualdeko hiru artistak «oso gustura» daude eszenografiari egin duten lehen lan honekin, «oso pozik» geratu dira.

Egin duten lana irudietan

Maketa txiki batetik abiatuta hasi ziren lanean, eszenatoki erreala sortu arte. «Jende askok hartu du parte eta lan handia egon da, eta horregatik, hori guztia irudikatzea erakusketa batean ideia egokia iruditu zitzaigun, jendeak guztiaren atzean dagoen lana ulertzeko», dio Arsuagak. Beraz, antzezlanaren estreinaldiarekin batera, erakusketa ere jarriko dute bihartik aurrera Leidorren bertan.

To.Pic zentroak ekoiztu du antzezlanaren erakusketa; «oso polita iruditu zitzaieen ideia, batez ere, arte diziplana desberdinak, artea eta antzerkia, nahasteko kontu horregatik», dio Cuetok. Aurrera begira, Donostiako Koldo Mitxelean jartzea ere espero dute erakusketa osatuagoa.

Bertan, bizi hartzen nola joan den lorategia ikusi ahal da, baina istorio osoa ikusteko, datorren astera arte itxaron beharko da.

LORAZAIN BATEN ETA ALABAREN ISTORIAO

Lorazain baten eta Abril bere alabaren istorioa da. Lorazainak larrosak zaintzen ditu eta Abril hazten laguntzen dio. Gerra hasten da, hasieran konturatu gabe, guztia lorategitik hurbil gertatzen da. Abril ssietara gerturaten da. Militarrak bere aitaz galdezka etorri dira eta larrosak zpaldu dituzte. Hil dituzten gizon libre eta ausarten hilibietara loreak eramaten ditu lorazainak. Noiz arte egon ahal izango dute tinko?

I Inkesta

1. Joango al zara 26. Titirijai Txotxongiloen Nazioarteko jaialdiko antzezlanetara? 2. Zer gustatzen zaizu gehien ikuskizunetatik?



«Aurten epaile moduan arituko naiz jaialdian»

Jon Barela

1. Gustatzen zait Titirijai jaialdia, eta urtero joaten naiz. Aurten ere joango naiz, baina era berezi batean, epaile moduan joango naiz. Beraz, egunean 3/4 ikuskizun ikusiko ditut, denera, 27 emanaldi-edo. Eta ondoren nire iritzia emango dut, hau da, zein gustau zaidan gehien esan beharko dut.

2. Txotxongilo guztiak gustatzen zaizkit, eskuzkoak, harizkoak, ma-haikoak...



«Umorezko saioak gustatzen zaizkit gehien»

Nerea Gonzalez

1. Pasa den urteko jaialdian ez nintzen izan gaiso bainengoan, bari-zelak jota. Baina aurten izango naiz, hala espero dut behintzat, gustatzen baitzaizkit. Iazkoagatik gogoratzen dut, liburua eman zigutela-eta.

2. Denetarik gustatzen zait, baina agian umorezko saioak gehiago, eta istorio bat kontatzen dutenak bereziki atsegin ditudala esango nuke.



«Aurtengo emanaldietara joatea espero dut»

Ainhoa Somoza

1. Ni berria naiz ikastetxean, baina, hala ere, ezagutzen ditut txotxongiloen emanaldiak, eta asko gustatzen zaizkit. Horregatik, aurtengo jaialdiko emanaldietara joatea espero dut.

2. Egia esan, era askotako ikuskizunak ditut gogoko, denetarik. Ipuina kontatzen dutenak, testurik gabe direnak, umorezkoak... Eta txotxongiloek dagokionez ere guztiak atsegin ditut.



«Helduen nahiz haurren ikuskizunak gogoko ditut»

Sebas Unanue

1. Gustatzen zait Titirijai jaialdia, eta joango naiz aurten ere ikuskizunetara. Herriari bizi ematen diote horrelako ekimenek.

2. Bi eratako emanaldiak gustatzen zaizkit, hau da, gaztetxoentzat direnak, hauetara umeekin joaten naiz, eta helduentzat direnak. Unearen arabera izaten da, batzuetan umorezko atsegin ditut, eta beste batzuetan sakonkiak.



«Istorio bat kontatzen dutenak gogoko ditugu»

Nerea Otaegi - Sara Vega

1. Oso politik iruditzen zaizkigu txotxongiloen emanaldiak. Eskolarekin joaten gara urtero urtero Titirijai jaialdian, eta aurten ere joango gara bertara, gustura gainera.

2. Askotariko emanaldiak ikusten ditugu, saio askotara joaten baika-ka, eta gustatzen zaigu saio desberdinak ikustea, baina denetarik, batez ere, istorio bat izaten dutenak nahi izaten ditugu.

Euskaldunen hizkuntz kexak jasotzeko, buzoiak

Euskara » Herritarren eskura jarri dituzte UEMAKo udalek, eskubide urraketak salatu ahal izateko.

ERREDAKZIOA

Euskaldunen hizkuntz kexak jasotzeko buzoiak jarri dituzte UEMAKo (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) udaletako udaletxeetan, eta kasu batzuetan udal instalazioetan (Kultur Etxeetan)... Hauek euskaldunok euskaldun koherente gisa jokatzeko edo jokatu nahi izateko izan dituzten eskubide urraketak salatzen dira. Izan ere, «oraindik asko dira euskaldunak baztertzeko dituzten toki eta eragileak»; erakundeek ez dituzte agiriak euskaraz bidaltzen, ahoz euskaraz hastean gaztelaniaz mintzatzeko eskatzen dute...

Kexa jartzera joaten denak inprimaki batzuk izango ditu buzoioen ondoan betetzeko. Nolanahi ere, argibiderik behar izanez gero, «udal langileek beren prestutasun osoa adierazi dute, nahi adinako laguntza emateko». Bestela ere, aukera izango dute kexak telefonoz jartzeko (943 260 372 edo 902 194 332).

Kexa jartzeko izen-abizenekin eman behar dira, «baina UEMAK nahiz Behatokiak konfidentzialtasun osoz jokatuko dute». Datuen Babesaren Legeari jarraiki. Hori bai, «UEMAk eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiak kexa behar den tokira helarazi eta haren segimendua egingo dute». Amaieran, UEMAren eta Behatokiaren konpromisoa da kexaren nondik norakoaren berri ematea herritarri.

Tolosaldean, 14 udalerrri dira UEMAKo kide: Aduna, Anoeta, Irura, Elduain, Belauntza, Leaburu-Txarama, Oresa, Gaztelu, Al-



Buzoien aurkezpenaren hainbat udaletako ordezkariak izan ziren. HITZA

tzo, Alegia, Baliarrain, Ordendain eta Ikaztegieta. Azaroa amaitu aurretik udaletxe guztietan buzoiak jarrita egotea da asmoa. UEMAKo udalek ez ezik eskualdeko euskalgintzak ere parte aktiboa izango du egitasmoan. Galtzaundik eta Kontseiluak «garrantzi handia eman diote ekimenari».

«Berriro ez gertatzeko»

Amaia Doyague Galtzaundiko kidearen ustez, «euskaldunok ezin dugusilik geratu halako urraketak jasaten ditugunean», eta salaketak jartzeko deia egin du: «Nahikoa dela esateko garaia iritsi da, eta buzoiak aukera ematen dute isiltasuna apurtzeko». Juanlu Aranburu Kontseiluko kideak *Euskaraz bai* leloa «ezin hobea» uztartzen dela ekimenarekin adierazi zuen.

Egitasmoa Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen eta Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren arteko hitzarmenaren ondorioa da. Helena Larrañaga Ikaztegieta-ko Udaleko zinegotziak gaineratu

zuen helburua ez dela kexak jasotzea bakarrik: «Egitasmoarekin urraketak horiek berriro gerta ez daitezkeen bidea irekiko du».

40 kexatik gora

Egitasmoa urriaren hasieran jarri zen abian, eta arrakasta handia izan du, jasotako kexen kopuruari begira: eskualdean bakarrik, 40tik gora kexa jaso dira. Horien artean, 11 urratzaile daude: agiriak gaztelania hutsez bidaltzen dituzten erakunde publikoak, informazio komertziala gaztelaniaz bakarrik bideratzen duten enpresak, jendea atentatzeak langile eraldunak...

Maidera Jauregi Alegiako Udaleko alkateordeak gehitu zuen: «Orena izango litzateke hemen-dik hilabete gutxira buzoiak kentzea, horrek esan nahiko duelako euskararen erabateko normalizazioa lortu dela». Bitartean, UEMAKo udaletako hautetsiek dei egin diete herritarrei buzoiak erabiltzeko, hizkuntz urraketak salatzeko.

Alegiako kultur jardunaldietako azken txanpan sartu dira

ERREDAKZIOA

Gutxinaka-gutxinaka kultur ekitaldi betetako Alegiako saskia ari da husten. Izan ere, etzi bukatzen dira ekitaldi guztiak. Gaur Zazpi astorengainean bertsozale taldeak antolatuta, bertso-poteoa eta bertso-afaria izango dira. 19:30ean hasita bertso-poteoa izango dute eta hori bukatutakoan, 21:00ak aldera, bertso-afaria izango da Intxurre elkartearen. Txartelak oraindik ere salgai daude gaur, Kultur Etxean.

Bertso-poteoko trikitilariak Eider Zubillaga eta Maider Zabala alegiarrak izango dira. Bertsotan, berriz, Unai Muñoa eta Iñaki Gurruixaga. Bi bertsolariak poteoan eta afarian ariko dira.

Oinkari bihar 22:30ean

Bihar gauean, Alegiako Elorri pilotalekuan Villabonako Oinkari dantza taldearen saioa izango da. Bertan, *Aspaldikotik* dantza ikuskizuna eskainiko dute. Alegiako Dantza Taldeak antolatuta du ekitaldi hau.

Emanaldian istorio bat kontatzen da, Juan Kruz Igerabidek sortutakoa, hain zuzen. Dantzei egokitutako istorioa da eta sorgin bat da protagonista. Mendeetan lotan egon ondoren, esnatu egiten da. Itxura aldatzeko ahalmena du eta berak dituen oroitzenak islatzen dira dantzen bitartez. Emanaldi honetan argi diseinuak eta musikak garrantzi handia dute.

Elkarretaratzea eta manifestazioa Anoetan

ERREDAKZIOA

Herenegun Anoetan joan den larunbatean 3 gazteen atxiloketa salatzen elkarretaratzea eta manifestazioa egin zuten. Ezker abertzaleak EAJren jarrera salatu nahi izan zuen: «Beldurra eta erreprosiore bitartez adierazpen eskualtasuna kaleetatik kendu eta eskual gazteria kriminalizatzen jarraitzen baitute».

«Beste behin», jarraitu zuten, «besteak beste, 90. hamarkadan Grupos Y taldeen muntaiarekin egin zutenaren antzera, orain ere, estatuen eta botere guzuen zapalkuntzari aurre egin eta bere eskubideak borrokatzen dituen gazte oro terrorismoarekin kriminalizatu eta beldurtu nahi dute».

«Benetako aldaketa bat eman beharrean, iruzur politikoa berritatu nahi duten guzti horien aurrean izango gara». Izan ere, «bi estatu inperialistek eta sistema kapitalista patriarkatu honek, sufrimendu asko ekarri baitigu». Honen aurrean, borrokatzen jarraituko dute: «Erasoak salatzen, eskubideak aldarrikatzen eta Euskal Herri berria eraikitzen».

EAJri zuzendu zitzaion ezker abertzalea, esanez, «hemen aske bizi eta izan nahi duen gazteri bat» dagoela, eta ez dutela onartuko «geure eta herri honen askatasunarekin zeuon interesen arabera negoziatzerik», eta etorkizuna Euskal Herriaren independentzia dela bukatuz.

Galtzaundik Euskara Taldeak eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak 1936ko Gerrako Oroitzapenak liburuaren inguruan antolatutako ekitaldi hauetara gonbidatzen zaituzte.

AZAROAK 28, OSTIRALA
Garraxi Ixila antzezina (Lasarteko Landaberri antzerki eskola). Xabier Lasaren Oroimenean *Lokartutako Ahotza* liburuaren oinarritutako obra.
Ordua: 22:00
Lekua: Leidor Zinema

ABENDUAK 1, ASTELEHENA
1936ko Gerrako Oroitzapenak Tolosaldean eta Leitzaldean liburuaren aurkezpena, Mikel Errazkin Agirrezabala eta Joxemi Saizar Arostegiren eskutik. Ondoren lunch-a guztientzat.
Ordua: 20:00
Lekua: Tolosako Zerkausia

ABENDUAK 2, ASTEARTEA
Gerra Zibila Tolosaldean hitzaldia, Aranzadi Zientzia Elkarte Mikel Errazkin Agirrezabala eta Jantxo Agirre Mauleonen eskutik.
Ordua: 20:00
Lekua: Tolosako Udaleko Pleno Aretoa

1936KO GERRAKO OROITZAPENAK
TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN



Oharra: Ekitaldi guzti hauetan 1936ko Gerrako Oroitzapenak liburuaren eskuratzeko aukera izango da.

Herri sinismenen inguruko liburua aurkeztuko dute

Anoeta » Liburuak 'Anoetako herri-sinismenak historian zehar' du izena eta aurkezpena gaur izango da elizan.

IMANOL GARCIA

Anoetaren historiari buruzko liburua aurkeztuko dute gaur, parrokiaren 19:30ean. *Anoetako herri-sinismenak historian zehar* izena du eta Anoetako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak argitaratuko dute eta egileak Juantxo Agirre-Mauleon tolosarra, Mikel Errazkin anoetarra, Maria Jose Hernandez eta Ana Isabel Rodriguez izan dira.

Tolosaldeko Historia bildumaren 13. zenbakia da liburua, Anoetari buruz idazten den bigarrena. Mikel Errazkinek azaltzen duenez, «Anoeta bezalako herri txiki batean, bilakaera historikoari buruz baino, interesgarriagoa izango zela ondarearen ikerketa buruztea». Ikerketa horrekin ere bilakaera historikoerakutsu daitezkeela eta «herriarentzako gertuagoa izan daitezkeen liburua delako. Askotan historia liburua zenbakiak eta hizki larriak izaten direlako eta herritarrengandik urrunagoa izan daitezkeelako», gaineratzen du.

Hiru atal

Horrela, ondarearen bidetik jotzea pentsatu zen eta ondare zibilarri buruz aurreko *Anoetako base-*



Misioak Anoetan, 40. hamarkadan. HITZA

riak liburua argitaratu zen eta orain ondare erlijiosoari buruzkoa ateratu dute. Hiru ataletan dago banatuta liburua. Horietako batean San Joan Batailatzailearen parrokiak deskribatzen da, eraikuntza bezala, eta Juantxo Agirre-Mauleonek egin du atal hori. Noiz eraikitzen den eta bertan dauden aldareak eta arte lanak noizkoak diren zehazten ditu. Bi iturri erabili ditu Agirre-Mauleonek: «Idatzitako agiri zaharrak irakurri ditugu eta bigarrena izan da bertara joan eta elizari, bere harriei, bere aldareei eta estilistikoki kokatu». Anoetako eskualdeko gainerako dinamika jarraitzen du: «Erdi Aroaren bukaeran eta XVI. mendean zehar batez ere gure eskualdeko herri txiki gehienetan harrizko elizak berreraiki zituzten». Agirre-Mauleonek ere gaineratzen du eliza berritarrek eraikitakoa dela, «beraien diruei esker, beraien borondateari esker, beraien helburu nagusia baita eliza eraikitzea».

Bigarren atalean bilakaera historikoa aztertzen da eta zer instituzio ezberdin sortu izan dira, eraikinetatik haratago. Lan hori burutu dute Maria Jose Hernandezek eta Ana Isabel Rodriguez.

Hirugarren atala Mikel Errazkin egin du. Abiapuntua izan da 60. hamarkadan herria asko aldatzen dela, gizarte tradizional batek hiritartze bat ematen da. «Tarte horretan bai gizarte antolaketa, bai sinismenak, bai herri guztiaren antolaketa erabat aldatzen da», dio Errazkin. «Saiatzeko gara gizarte hori nola antolatuta zegoen deskribatzea».

Kantautoreen Gaua herriko bi tabernatan

Zizurkil » UEK, Kemen Lertxundi eta Depedro ariko dira Atxulondo eta Egarri tabernatan; sarrera doan izango da.

ERREDAKZIOA

Kantautoreen Gaua antolatuta du Udalak *Zizurkil*en ezar ez *ta festa!* zikloaren baitan, gaurkorako. UEK (Keu Agirretxe) ariko da 22:30ean Atxulondo tabernan; 23:00etan Kemen Lertxundiren txanda izango da, baita ere Atxulondo tabernan; bukatzeko Depedro ariko da kontzertua emanez, 00:15ean, Egarri Tabernan. Sarrera doan dira.

UEK (Keu alderantziz idatzita) Jesus Mari Agirretxe da, Ondarruko gitarra jotzailea, euskal rockaren baitan curriculum garrantzitsua duena: Etsaiak taldeko kidea eta gitarra jotzailea izan da, baita Fjord proiektuaren sortzailea ere. Bere aurreko hiru lanetan paisaia instrumentalak marraztu baldin baditu, kasu honetan Keuk berak abesten du eta jotzen du gitara, Mikel Arakistain baxu jotzaileak (Etsaiak, Fjord) eta Jon Gurrutxaga bateria jotzaileak (Arima Beltza) lagundurik. Agierian geratzen dataldegisa bere egiten dutena: 70. urteetako hard-rocka, rock melodikoa eta eritmo biziak tarteko.

Kemen Lertxundi Ondarroako poeta eta musikari gazteak argitaratzen duen lehen lana da *Galdutako zubixak*. Bi bideak elkar gurutzatu eta lotzen dira bertan. Testuen koadernoan kantuek eta poemek egilearen biografia sentimental moduko bat osatzen dute, giza harreman orotan aurkitzen ditugun sentimenduez hornitua.



UEK, Keu Agirretxe. HITZA



Kemen Lertxundi. HITZA

Diskoan bi formatutan agertzen zaigu; batean, bakarka eta era akustikoa, gai da akorde gutxi batzuekin intentsitateaz betetzeko kantuek.

Bestean, Ondarroako Garden rock progresiboko taldeko musikarien babesaz, indar melodiko handiko eta moldaketa klasikoek jantzitako pop-rock eremura eta errepideko rock amerikarrera jotzen dute kantuek.

Jairo Zavalaren proiektu pertsonalena da Depedro. Caixico talde amerikarrarekin munduan zehar jotzen aritu da eta mestizajea eta fusio musikala dira bere ezaugarriak.

Juan Vallejoren eta Leire Agirreraren ikus-entzunezkoak gaurkorako

Mendia » Aizkardiren eta Sagainen mendi asteak azken txanpan sartzen dira; bi emanaldiak 20:00etan izango dira.

ERREDAKZIOA

Bere azken txanpara iristen ari dira Villabonako Aizkardi elkartearen eta Asteasuko Sagain elkartearen mendi asteak. Gaur izango dituzte ekitaldi bana. Villabonan Juan Vallejoren *Montañas del Karakorum* ikus-entzunezkoa emango dute, Gurea aretoan, 20:00etan. Horren ondoren Aizkardiren I. Argazki Rallyaren sari banaketa eta lanen erakusketa egingo dute.

Asteasun ere ikus-entzunezkoak izango da. Leire Agirre eskalatzaileak emango du eta 20:00etan izango da, udaletxe zine aretoan. Aurretik, Sagainen Mendi As-



Sagainen Mendi Astean egindako mahai-inguruaren une bat. HITZA

tean, Gazumen egitekoa den parke ekologikoaren inguruko mahai-ingurua egin zen.

Jende dezente joan zen mahai-ingurura eta Sagain mendi ikus-entzunezkoak gaurkorako dira mahai-inguruak emandakoarekin. Gonbi-

datuta zeuden guztiak ez baziren azaldu ere, Energiaren Euskal Erakundearen kide bat eta Seo-Bird Life elkarteak kide bat izan ziren eta bien artean eta entzulegoaren galderekin eman zuen eztabaidan on bat burutzeko.

Mikel Astarloza omenduko dute gaur Urkamendi elkarteak

Zizurkil » Urtero bezala, elkarteak Tour-eko lehen txirrindulari esukaldunari omenaldia egingo dio; Astarloza 16. izan zen.

ERRADAKZIOA

Zizurkilgo Urkamendi elkarteak, urtero bezala, Frantziako Tour-ean lehen euskalduna izan denari omenaldia egingo dio. Aurtengoa Euskaltel-Euskadi taldeko Mikel Astarloza izango da, Tour-a 16. postuan bukatu eta gero. Gaur izango da omenaldia eta 20:30ean

hasiko da agurra dantzatuz. Ondoren afari eder bat egingo dute eta sari banaketarekin amaituko da.

Omenaldian parte hartzeko, ohi bezala, txirrindulariak eta txirrindulari ohiak izango dira bertan: Itsaso Leunda, Leire Olaberria, Egoi Martinez, Gorka Verdugo, Axiel Maeztu, Iñaki Lejarreta, Andres Gandarias, Marino Lejarreta, Txomin Perurena...

Hauetaz gain eta festa borobiltzeko asmoz Sebastian Lizaso, Alaitz Sorozabal eta Millan Telleria bertsoariak izango dira bertan, Xapre eta Totxo trikitilariekin batera.



Ibarran elkarretaratzea egin beharrean manifestazioa egingo dute gaur «Udalaren jarrera salatze».

Bi eskualdeetan Etxerateg elkarretaratzeak egingo ditu gaur azken ostirala izaki

Politika » Bilbon nazio manifestazioa egingo du Etxerateg urtarillaren 3an, bertara joateko deia egingo dute elkarretaratzeetan.

ASIER IMAZ

Leitzaldeko eta Tolosaldeko Etxerateg deituta elkarretaratzeak egingo dituzte gaur, hilabeteko azken ostiralean, ohiko leku eta orduetan.

Elkarretaratzeetan urtarillaren 3an Bilbon egingo duten nazio manifestaziorako deialdia luzatuko dute herritarren artean.

Ibarran ohi bezala herri sarrean elkartuko dira gaur 19:30ean. Hala eta guztiz ere, bilkura beharrean manifestazioa egingo dute *Udaletxe honek dispersioa bultzatzen du!* lelopean.

Manifestazioa Nazionala Bilbon urtarillaren 3an

Abuztuko bigarren asteburuan Etxerateg VIII. Batzar Nazionala burutu zuen Etxarri Aranatzan (Nafarroa). Batzarraren ostean, prentsaurrekoan, urtarillaren 3an Bilbon nazio manifestazioa egingo dutela aipatu zuten Euskal preso politikoen senideen Elkarteak kideek.

Hilabeteko azken ostirala gaur izanik, Bilboko manifestazioaren manifestua zabalduko dute bi eskualdeetako herritarren artean.

Manifestua

Manifestuaren izenburua honako hau da: *Biziarteko zigorrak ez! Herriotza zigorrak ez! Euskal presoak Euskal Herrira!* Bertan, Etxerateg kideek, euren senide eta lagunek presondegiatan bizi duten

egoera «krudela» salatzen dute: «Giza eskubideen ukazioa eguneroko ogia da espetxeetan. Preso politikoa pertsona bezala suntsitu nahi dituen politikarekin jarraitzen dute bi gobernuak, presoak bakartuz, komunikazioa zailduz, oinarrizko eskubideak zangopilatuz. Azken urteetan euskal preso politikoei begira hartzen ari diren neurriek ere berdina erakusten dute, biziarteko espetxe zigorra eta gaixo larriek ezarritako heriotza zigorra izanik bere espresiorik gordinenak. Nola ulertu bestela minbiziak jota dauden presoak espetxean mantentzea? Nola ulertu bestela 20 urteko espetxe zigorra bete duen presoari bere kondena beste 10 urtez luzatzea? Helburu argiak dituzte euskal preso politikoen aurka hartzen ari diren salbuespeneko neurriak».

Neurri hauekin presoekin batera bere senide eta lagunak zigortzen dituztela salatu dute Euskal preso politikoen senideen elkarteak: «Sakabanaketak presoekin senideei ondorio ekonomiko eta fisiko nabarmenak eragiten dizkie, kilometro guzti hauek egiteak suposatzen duen arriskuaz gain. Ondorio larriena heriotza da, errepidean bizitza utzi dute 16 senideek erakusten duten bezala».

Egoera honen arduradun bezala Espainiako eta Frantziako gobernuak aipatu dituzte, ondorengo eskaria luzatuz: «Gaixotasun larriak dituzten euskal preso politikoa berehala askatu ditzatela. Biziarteko zigorra ezartzeko neurriak bertan behera utz ditzatela eta Euskal presoak euskal herrira tuak izan daitezela, sakabanaketa eta bakartze politikarekin amaituz».

Azkenik, herritarrei zuzendu

zaie Etxerateg: «Herritarren inplikazioarekin eta lanarekin soilik lortuko dugu helburu hauetara iristea. Lan asko egin da urte hauetan guztietan, baina egoerak larria izaten jarraitzen du eta asko dugu oraindik egiteko. Bide honetan euskal preso politikoen eskubideen alde urtarillaren 3an Bilbon burutuko den nazio manifestazioan parte hartzeko deia luzatzen dugu hemendik».

Ibarran eta Villabona manifestazioa gaur

Ohi bezala, Ibarran herri sarrean elkartuko dira gaur 19:30ean. Gaurkoan ordea, elkarretaratzea beharrean manifestazioa egingo dute presoekin inguruan Udalaren jarrera salatze. Antolatzaileen esanetan, «orain arte presoekin senideen bidaietarako jasotzen zizuzten diru laguntzak uztaillaren 29ko Udalbatzan aho batez bertan behera geratu zirela salatuko dugu».

Villabonan, berriz, manifestazioa egingo dute gaur 20:00etan Iru-Aldetatik, «18 urte betetzen baitira Miguel Zalakain euskal presoak kartzela hil zela».

» ELKARRETARATZEAK

Gaur, azaroak 28

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Amezket.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 20:00etan.
- **Ibarr.** 19:30ean.
- **Ikaztegieta.** 20:30ean.
- **Leitza.** 20:00etan.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.

Torrean Arabiar Festa antolatu dute bihar arratsaldean eta gauean

Leitza » Marokoar erara tea edaten hasiko dira, gero maghrebeko janaria dastatuko dute eta azkenik dantzan amaituko dute.

A. IMAZ

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Torrean Elkarteak Arabiar Festa antolatu dute bihar Torrean.

Etorkinen integraziorako programaren baitan kokatu behar da biharko festa eta bertan kultura ezberdinetako ohiturak ikusi, dastatu eta ospatu ahal izango dira arratsaldetik aurrera.

Egitaraua

Jaiari hasiera arratsaldean emanango diote marokor erara tea hartuz. Arabiar gozoak dastatzeko aukera egingo da tearen ostean edo teare-

kin batera, norberak nahi duen bezala.

Afaltzeko garaian, 20:30etik 23:00etara, Maghrebeko janariaren dastaketa egingo dute. Honen arabera, Torrean besteak beste Cous-cousaz, Tachin-az edo txekor haragiaz eta Maghrebeko sorbeteez gozatzeko aukera egingo da.

Jaiarekin amaitzeko, gauean besteak beste musika arabiarra entzuteko eta dantzatzeako aukera egingo da Torrean. Hellburu horrekin, DJ bat ere gonbidatu baitute. DJ Morauek musika arabiarra eta magheb-tarra jarriko du festari amaiera emateko.

Ikusi, dastatu eta ikasi

Antolatzaileek herritarrek kultura ezberdinak ezagutzera gonbidatu dituzte, Etorkinen integrazio programaren baitan antolatu duten Arabiar Festan parte hartzera deituz.

Mendibil Mendi Taldeak ibilaldia antolatu du etzi Aralarren barna

Leitza » Bost orduko ibilaldia aurreikusten dute eta Aralar zeharkatu ostean 14:30ean herrira itzultzea espero dute.

A. IMAZ

Mendibil Mendi Taldeak ibilaldia antolatu du igandean. Aralarretik zeharkaldia egingo dute goizean abian jarri ostean; Guardetxetik

Larraitzera joango dira mendia ibilaldian parte hartzen duten mendizaleak.

Bost orduko ibilaldia

Goizean goiz, 08:00etan, elkartuko dira herriko plazan mendigoizaleak. Leku berrietik barrena Guardetxera iritsiko dira lehenik, autoak edo autobusa utzi eta oinez hasteko. Mendia ibilaldia egiteko bost ordu inguru beharko dituzte, 14:30ak aldera Leitza itzultzeko.

Txan Magoak emanaldia eskainiko du abenduaren 3an

Areso » Asteazkenean, 17:00etan Eskolako gimnasiolekuan emanaldia eskainiko du inguruko haur eta ez hain haurrentzat.

A. IMAZ

Aresoko Udalaren Euskara Zerbitzuak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin Txan Magoaren emanaldia antolatu du abendua-

ren 3an, asteazkenean. Ikuskizuna 17:00etan izango da Aresoko Eskolako gimnasiolekuan.

'Kultur Zikloa'

Euskal magoaren emanaldia Nafarroako Gobernuak urtero antolatzen duen *Kultur Zikloa* izeneko zirkuituan kokatzen da.

Antolatzaileek herritarrek eta inguruko haur eta ez hain haurrek gonbidatu nahi izan dituzte Txan Magoaren emanaldira.



9°
5°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	7°
HOTZENA	4°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leizor: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Aldea: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Muyayos de raiz taldearen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

Antzerkia

■ **Tolosa.** Garraxi Ixila Lasarteko Landaberi Antzerki Eskolak eskainitako antzezlanaren Kultur Etxean 17:30ean, Galtzaundi eta Tolosaldeko Hitzak antolatuta Aranzadi Zientzia elkartearen laguntzarekin. Gerra zibilaren inguruko ekimenak.

Deialdiak

- **Alegia.** Gaur arte Kultur Etxean ostiral iluntzeko bertso afarirako txartelak daude salgai. Muñoa eta Gurrutxaga izango dira bertsoetan. Triki poteoa 19:30ean hasiko da plazatik.
- **Tolosa.** World Coffe-n inspiratutako eztabaida irekia Zerkausian 19:00etan, Tolosa 2015 plangintzaren bukaera gisa.
- **Tolosa.** Liburu Azoka San Franzisko pasealekuan goiz eta arratsaldean, igandera arte.
- **Tolosa.** Lizardiko eskopetariaren afaia abenduaren 13an Maite Amonarri kapitaina omentzeko eta agurtzeko. Izen-ematea, 699 551765 telefono zenbakian.
- **Tolosaldea.** Euskararen eguna dela eta, Kontseiluak, abenduaren 13an, BECen antolatutako duen ekitaldian autobusak antolatutako Galtzaundi Euskara Taldeak, 15:30ean aterata tren geltokitik. Izen-ematea, Galtzaundiko egoien...

tzan 11 eurotan (bazkideek, 8 eurotan).

Erakusketak

■ **Tolosa.** Ainhoa Arregi, Amaia Aramendi eta Arrate Iturbe artistek

tek Iparretik Hegora buruz behera argazki erakusketari jarri dute Itaie tabernan, Peru, Argentina eta Mozambiquen ateratako irudiekin.

■ **Anoeta.** Egutegirako argazki lehiaketako lanen erakusketari ikus-

gai izango dira Abraham Olano kiroldegian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 675118.

■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunikuzin.

A Agurrak



Zorionak Adurtxo!

Bihotzez natorkizu zorion besomean, kandelak piztu eta umore onean danok puts eingo dugu zuri kantatzean ilusioz beteta zure egunean.

TB Digitala

Guk izarrak eramango ditugu. Zuk prestatu krispetak.

Estreinatu ezazu zinemarik onena eta askoz gehiago TB Digital onenean

hilean 14,1 € bakarrik ordainduta

Bardem, Will Smith, Scarlett Johansson, Jony Deep... Norekin ajaldu nahi duzu gaur gauean? Izanak zure etxean, TB Digital onenarekin. **1717** zerbitzua deituta edo Euskaltelen saltokitari.

euskaltel zuretzat 10!

zuztuOptikoak

Deitu **1717** edo etan Euskaltelen saltokitara.

TB Digitala zure abenturaren kanala da eta zurekin jarraitzen duen zinemaren berrantzezko zinemak, zineak eta dokumentalak eskaintzen ditu. TB Digitala zure abenturaren berrantzezko zinemak, zineak eta dokumentalak eskaintzen ditu. TB Digitala zure abenturaren berrantzezko zinemak, zineak eta dokumentalak eskaintzen ditu. TB Digitala zure abenturaren berrantzezko zinemak, zineak eta dokumentalak eskaintzen ditu.